



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA
MARTIN BARUA PICAZA nº 27, 4ª PTA 48003 BILBAO
Tfno.: 94 443 17 34 Fax: 94 444 35 62
www.bmf-fvm.org
<https://www.facebook.com/Bmf-Fvm/597553177057267>

AKTA

BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOKO BATZAR OROKOR ARRUNTA ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA DE BMF

Bilbon, 2018ko martxoaren 7an, 19:30ak direnean, BMF-ko Batzar Orokorra eratu da bigarren deialdian. Victor Manuel Vivar Federazioko presidentea buru, federazioko Ainara Aparicio idazkaria batzarreko idazkari bezala eta baita Ricardo Hernani, Dioni Perez, Garbiñe Okerantza eta Ana Sesumaga Zuzendaritzako kideak.

BERTARATUTAKOAK:

AKREDITAZIOA EDO ORDEZKARITZA ZUZENA DUTEN KLUBAK:

Bilbao Alpino C, Gallarreta, Deustuko Menditarrak, Aldatz Gora, Baskonia M.T, Gallarraga, Ganguren M.T, Ganzabal M.T, Goiko Mendi, Alpino Tabira M.T, Turista Barakaldo, Ganerantz, Sestao Alpino C, Ubietamendi, Encartaciones, Goi Gain M.T, Egunsentia, Gailurra M.T, Lezama Gailur M.T, Cicloturistas de Euskadi C. La Rioja, Burtotza M.T, Beraskola M.T, Bldelagun M.K.E, Lamino Kirol Kluba, Untza Mendi Taldea.

BMF-KO HAUTESKUNDE BATZORDEAK LEGEGINTZALDI HONETARAKO ESKATUTAKO ORDEZKARITZA OROKORRA AURKEZTU EZ DUTEN KLUBAK BAINA BATZAR HONETARAKO PUNTUALKI AURKEZTU DUTENAK:

Arroletza, Munarrikolanda M.T, Txarlazo M.T, Etorkizuna M.T, Juventus S.D, Artarraí M.T, Artibai M.T, Itxartu M.T.

KIROLARIAK:

Ricardo Hernani, Roberto Mínguez, Hodei Castro, Joseba Undurraga, Víctor Manuel Vivar, Ainara Aparicio.

TEKNIKOAK:

Koldobika Vadillo.

Víctorrek, BMF-ko presidente bezala, ongi etorria ematen die bertaratutakoei. Idazkariak Batzarrera etorritako kideen informazioa ematen du: boto eskubideekin 33 klub (88 boto), 6 kirolarien ordezkari (6 boto) eta ordezkari tekniko 1 (1 boto), guztira 40 pertsona bertaratu direlarik 90 botorekin.

BATZARRAREN ERAKETA:

Aurreko datuak ikusita, Presidenteak ez ohiko batzarra eratutzat ematen du, Federazioko Estatutuen 20. Artikuluan datorrenari jarraituz.

Batzar Orokor hau, Bizkaiko Mendizale Federazioaren Presidenteak deitua izan da, BMF-ko estatutuetako 18. Artikuluak adierazten dituen epearen barruan, eta bertan jorratuko diren gaiak, deialdiko gai zerrendan sartuz. Gai zerrendako puntuak deialdian izanik. Batzar honen helburu

nagusia 2017 kontabilitate itxiera aurkeztea eta 2018 ikasturte honetarako aurrekontuak onartzea da.

Presidenteak, aurreko BMF-ko eskema jarraituz, ordezkari ofizialen laguntzaile bezala (klub bakoitzetik bat) etorri diren kideei batzarreko sarrera baimendu zaie, boto eskubiderik ez dutela argi utziz. Boto eskubiderik ez duten Dioni Perez eta Garbiñe Okerantza zuzendaritzako kideak ere aretoan aurkitzen dira.

Beste gairik jorrazteko eskaerarik jaso ez denez, BMF-ko Estatutuen 19. artikulua jarraituz, deialdiko Gai zerrendara pasatzen da.

GAI ZERRENDAKO LEHEN ETA BIGARREN PUNTUAL: 2017KO AZAROAREN 29AN OSPATUTAKO OHIKO ETA EZ OHIKO BATZAR OROKORREN AKTAK IRAKURTzea ETA ONARTEA, HORRELA IKUSTEN BADA.

Akta hauen edukia deialdiarekin batera Batzarreko kide guztiei bidalia izan dela jakinarazten da. Batzarreko kide batzuek, bertan izan ziren kide batzuen presentzia ez dela adierazten azaltzen dute: Turista Barakaldo Ohiko eta Ez ohiko batzarreko aktan eta Juventus Ez ohiko Batzarrekoan. Arrazoi praktikoengandik, hauen irakurtzea ez burutzea erabakitzen da eta hauen onarpenerako bozketara pasatzea eskatzen da, beti ere horrela adosten bada. Jarraian bozketa burutzen da eta aho batez onartzen dira, lehendabizi ohiko batzarrekoa eta ondoren ez ohikoarena.

HIRUGARREN PUNTUA: ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDE BERRIAREN AURKEZPENA ETA BERRESPENA.

Fernando Javier Ruiz batzarkide bezala sartzten da, mendi lasterketen arloz arduratuko delarik, behin estatutuetako 28. artikulua jarraituta, Batzarrak horrela berresten badu. Bere aurkezpena burutu ondoren, aho batez onartzen da BMF-ko zuzendaritzarako kide berria izatea.

LAUGARREN PUNTUA: DATUEN BABESERAKO LEGE ORGANIKOAREN GAINEKO INFORMAZIOA (DBLO).

Aurreko batzarrean adostutakoaren arabera, DBLO gaian aditua den Luis Angel Gonzalez Perez izan da batzarrean. 30 minutuz aurreko batzarrean entregatutako dokumentu eta lege honen gaineko zalantzak argitzen ibili da. Lege honen zenbait gai betetzea zaila izango zaiela adierazi ondoren, klub batzuek beraien kezka adierazten dute eta gai honi buruzko saio monografiko bat egitearen beharraz bozketa bat egiten da, honako emaitzarekin: 37 boto aurka, 29 alde eta 14 abstentzio. Bozketa hori kontuan izanda, ez da saio monografikorik burutuko baina egitea nahi duten klubentzako aurrekontu bat eskatzea adosten da eta ondoren beraiekin baloratuko da egin ala ez.

BOSGARREN PUNTUA: 2017KO KONTABILITATE ITXIERA.

Jarraian Dioni Perez diruzainak hartzen du hitza, 2017 ekitaldiko kontabilitate itxierari buruzko datu ekonomikoak aurkezteko. Pasa den urtean onartutako aurrekontuaren gaineko konparaketa bat egiten du, egondako aldaketak ondo adieraziz eta zergatik gertatu diren justifikatuz.

SEIGARREN PUNTUA: 2018RAKO AURREKONTUA

Jarrian, Dionik kontabilitate itxieraren antzeko modelo bat planteatzen du, 2018 aurrekontuak azaltzeko. Horretarako ataletan ageri diren aurrekontuak azaltzen ditu, kontzeptu garrantzitsuak azalduz.

Bi azalpenak burutu ondoren eta ez denez inolako zalantza eta galderarik ageri bertaratutako en artean, bozketa egiten da, lehendabizi kontabilitate itxieraren gainean, aho batez onartuz. Eta ondoren, aurrekontuak onartzen dira, hauek ere aho batez.

ZAZPIGARREN PUNTUA: JARDUEREN EGUTEGIA

Victorrek urte honetarako antolatu diren jardueren berri ematen du, Euskadiko Goi Mendi Eskolako eta eskola kirolekoen gain: Orientazio Martxak, Bizkaiko Mendizale Federazioaren XXII. Martxa, Andres Regil Kopa, Segurtasunari buruzko kopa..... Era berean, klubetako borondate oneko gidantzako formakuntza jardunaldiak eskainiko direla adierazten da. Jardunaldi hauek alde teorikoa izango dute eta baita Gorbeia aterpetxean burutuko diren praktikak ere. Email bidez bidaliko diegu informazio guztia klubei.

Ondoren, Anak, mendi-bideen arloan burutuko diren jardueren gainean informazioa ematen du.

Lehendabizi, PR-ak eta GR-ak berromologatuak izango direla adierazten du.

Bigarrenik, mendi-bideak seinaleztatzeko eta markatzeko formakuntza ikastaro biri buruz hitz egiten du. Hauek Alonsotegin eta Markinan emango dira, mendi-bideetako sustatzaileei zuzenduak izango dira.

Hirugarrenik, eskola kirolarekin batera jarduera bat burutuko dela adierazten du, 8 eta 12 urte bitarteko haurrekin, Urkiola Ezagutzuz, PR-BI 80 bidetik.

Bukatzeko, Bizkaiko Xenda-zaletasun Liga nola antolatu den adierazten du, bertan 11 klub en laguntza izan dela adierazi ondoren.

ZORTZIGARREN PUNTUA: ERREGUAK ETA GALDERAK

Bertaratutakoei, galdera edo zalantzarik duten galdetzen zaie. Beste gairik ez dagoenez, Bizkaiko Federazioko Presidenteak bukatutzat ematen du Batzarra, bertaratutakoei beraien parte hartzea adieraziz.


Stua.: Ainaara Aparicio
BMF Idazkaria


Stua.: Víctor Vivar
BMF Presidente